

Literatura →

Onak gara berez?

Alex Gurrutxaga

Mary Shelleyren nobela irakurri duenak badauki munstroa ez dela Frankenstein. Frankenstein, munstroa moldatu eta biziarazi duen doktorea dela. Halere, *Frankenstein baino itsusagoa!* esaten da». Joseba Sarrionandiaren hitzak dira, eta ematen dute pista- ren bat jakiteko Mary Shelleyren nobela nola egin den ezagun. Askok ez du nobela irakurri, baina gehienok ezagutzen dugu istorioa; beldurrezko nobela da, zientzialari ero bati eta berak sortutako izakiari buruzkoa. Akaso horretan dago testuaren erakargarritasun nagusia, baina istorio izugarri bat baino gehiago da *Frankenstein*.

Itzulo Errastik ekarri du euskara, eta itzulpenak ez du tatxarik: lortutako baliokidetzaz gain, ematen du estiloa ederki harrapatu duela. Horretaz aparte, matizazio bana egin daiteke. Errastik ez du esaten itzulpena zergatik den nobelaren 1931ko edizioarena, eta ez 1918ko lehenbizikoarena. Ez da, jakina, hautu okerra, baina liburuari hitzaurrea egiten hasita,

ixtura da aukeraketa arrazoitzea, are gehiago kasu honetan, edizioen arteko desberdintasunak kontuan izanda.

Literaturari hertsiki helduz, beste matizazio bat. Errastik aurkezpenen esan zuenez, *Frankenstein* «ez da berez nobela gotiko puru bat, nahiz eta halakotzat jo izan den». Nobela gotikotzat jo dute adituek, eta horretan nago neu ere. Egia da, halere, nobela erromantikotzat ere hartzekoa dela; horren adierazle dira, besteak beste, norbanakoaren garrantzia, naturaren eta barne-bizitzaren lotura eta kulpari buruzko gogoetak. Baina erromantizismoa ez zaio gotikoari kontrajar-tzen.

Edonola ere, Errastik zantzu-tutakoaren bidetik, interesgarria da oharreza gotikoa egiteko moduan dagola nobelaren berritasun nagusietako bat. Alde bate-tik, gotikoaren motibo petoak daude—iluntasuna, piztia, paisaia izugarriak, eta abar—eta beldurra eragin nahi da. Gainera, gibe-ko ideietan ere hor dago goti-koa: sublime edo izugarriaren edertasuna, onaren eta gaizkia- ren arteko dualismoa, edo prota-

gonistaren nahia bere izatea gainditzen duena ulertzeko. Ber- rritasuna dakarrena da Shelleyk ezabatu egiten dituela gotikoan ohikoak ziren osagai magiko eta naturaz gaindikoak. Kontuan izan behar da doktoreak zien- tzian, arrazoian eta jakintzan oi- narrirituz sortzen duela munstroa. Horrek dialektika berritzailea da- kar literaturara, ilustrazioak planteatu zituen ideien inguruan jokatzeko dena: aurreraparen eta zientziaren mugei buruzko ez- tabaida hain zuzen.



'FRANKENSTEIN'

- Egilea: Mary Shelley.
- Itzultzailea: Itzulo Errasti.
- Argitaletxeak: Erein eta Igel.

Beste interesgune nagusietako bat munstroaren izaeratik era- tortzen da. Zientzialaria, Prometeo moderno hori, «buztin biziga- beari arnasa harrarazi» orduko damutu egiten da. Piztia, berriz, ona da sortzez, baina Paradisua ukatua zaio, jendarteak baztertu egiten du, eta bakardade horrek gaiztotzen du; honela dio berak: «Denean dakusat poztasuna, eta neuk bakarrik dut, halabarrez, poz hori galarazia. Onbera eta zintzoa nintzen; zorigaitzak bihurtu nau deabru». Ilustrazioa- ren ondorengo filosofiaren kezka nagusietakoak dira pertsonaren berezko izatea eta norbanakoaren eta jendartearen arteko tentsioa, eta Shelleyk lerro artera ekartzen ditu bere garaiko ezta- baida nagusiok—eta, bereziki, Rousseuren ideiak—.

Badakigu istorioa zein den, printzipioz. Alabaina, irakurketa ezinbestekorik bada, *Frankenstein* horietakoa da. Beldurrezko istorio gozagarri bat baino gehi- go da: Mendebaldearen historia modernoan oinarritzea den dia- lektika gorpuzten du nobelak li- teratur maila nabarmenarekin. Onak gara berez?

↓ Haur eta gazte literatura

Panpina, azken babesgune

Imanol Mercero

Denok gozatu beharko ge- nituzke gure mundu txi- kiak—euskararenak diot—dituen abantailak; esatera- ko, begi kolpe batean argitara- tzen den guztia ikustekoa.

Ohere horixe dute euskara be- zalako hizkuntza ez-komertziale- an lan egiteko ohitura suizida du- ten argitaletxe, idazle zein ilus- tratzaileek: denok dakigu nortzuk diren ero maitagarri ho- riek.

Beharrik, dena ez da isolamen- du eta bakarriketa. Euskaldu- nok badugu arrotz hizkuntzetan idazten eta esaten dena jarraitze- ko ohitura eta haieztatik gure mundua elikatzeko nahikoa seta. Onerako zein txarrerako atze- rrian jotzen duten haize berberak jotzen dute gurean ere.

Bada joera bat literatura ira- kurlearen barne gatazkekin ha- rremanetan jartzekoa gaur gure- ra ekarriko duguna *Mux munstroa* liburua bidez. Labur esanda alorrekoek «lagun imaji-

narioa» deitzen dutena da, beste- la «alegiatzko» edota «irudime- nezko lagun» bezala ere izenda li- tekeena, baina muinean haurrek euren irudimenean sortzen du- ten lagun pribatua dena. Kasurik muturrenakoetan lagun hau iku- sezina izaten da, baina normale- an panpina bat izaten da.

Lehendik ere baguenen gai hau proposatu duten euskal sor- tzaileen ekarpenik, urrutira joan gabe Maite eta Mikel, Gurrutxa- ga anai-arrebek, 2009an Etxepare sariaren bidez kaleratu zuten

Alex, nire laguna adibide zoraga- rria dugu. Eta bide batez esanda, Añorga eta Mitxelenak sortu be- rri duten Mux munstroarekin pa- ralelismo bat baino gehiago di- tuena, bietan ere munstroak bai- tira haurtxoen adiskideak.

Vicente Muñoz Puellesek eta Noemi Villamuzak sortutako *Ri- kardito eta dinosauro gorria* izan li- teke gai honi buruz erdaratik ekarritako adibide ona, irakurke- ta errazteko eta istorio ongi josia duena.

Baina Mux munstroa ez da la-

gun ikusezin bat, Alex den bezala edota Rikardoren dinosauroa den bezala. Ez. Mux oihala eta ko- toi betegarritz egindako munstro urdin adardun bat da, ferietan aurki litezkeen panpinen antze- koa, handia eta hauskorra. Mux Nikoren panpina da, Nikoren sos- tengua, arrotz eta hotz zaion mundu batean.

Tentsio giroan bizi da Niko, gu- raso bananduekin, haurriderik gabe, ordu asko bakarrik. Amare- kin astegunez, aitarekin astebu-



'MUX MUNSTROA'

- Idazlea: Pello Añorga.
- Ilustratzailea: Jokin Mitxelena.
- Argitaletxea: Elkar.

ruetan. Amak urduri hartzen du haurra, nekeak makurtuta supo- satu behar du irakurleak.

Baina ez da istorio dramati- ko bat. Narrazio domestiko bat da, hangoa edo hemengoa, gure arte- koa. Edozein etxetan gerta liteke Niko bizi duenaren antzeko ten- tsio-aldi bat, bizimoduak hain di- tugu estu antolatuta...

Idazlea saiatzen da erretratu inpartziala eraikitzen, inor juzga- tu gabe, adin guztientzako irakurketa aberasgarria proposa- tzen. Anekdotak bat kontatzen, irakurleak leihotik begira ariko balitz bezala sentiarazteko.

Ilustratzaileak eszena garbiak proposatzen ditu, fokua ekintze- tan jartzen, txuri-beltzean oina- rritutako kolore paleta zuhurra- rekin, hori-gorri-urdin eta ber- dea. Eta istorioari bere ekarpena egiten saiatzen da, testuarekin kontraesan jartzeko arriskua hartuta.

Guztiarekin liburu xume gogo- angarri bat sortzen da, 32 orrial- dekoa, tapa bigun apala, Batela bildumako beste perlatxo bat.

Tratatu politikoa

'TRATATU POLITIKOIA'

- Egilea: Baruch Spinoza.
- Itzultzailea: Patxi Ezkiaga.
- Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitatea.

EHUren Limes bildumako 20. liburua da honako hau. *Tratatu politikoa*-n sistemati- koki aurkezten du Spinozak bere filosofia politikoa. Gizarte politikoa, beldurra eta itxaro- penak bultzatutako gizaki zaur- garrien batasunak eraginda ezartzen dira.



'ARIMAK ETA BALIOAK'

- Egilea: Agustin Arrieta Urtizbera.
- Argitaletxea: Jakin.

Arimari eta balioei buruzko usteak bestelako usteetatik bananduta samar agertzen dira maiz. Erlijioak erantzunak ematen ditu gaiaren inguruan, baina erantzun horiek talka egiten dute ikuskera naturalarekin. Liburu hau arimak eta balioak modu natural batean ulertzeko saildi bat da.



'ZISNEA ETA UHARTEA'

- Egilea: Miren Agur Meabe.
- Argitaletxea: Elkar.

Arian bilduman argitaratu du narrazio hau Elkar argitaletxe- ak, euskara ikasleen lagungarri. Gaztea zenean, Kerman Mendi- zabalek Eguzki lore hotelean lan egiten zuen. Aste Santuko oporretan Julia ezagutu zuen, eta une bereziak bizi izan zituz- ten. Egun haietan, bitxi lapurre- tan gertatu ziren Bilbon, eta Polizia hoteleraino heldu zen.